

De la Fuente: "Filmean black basque powerra irudikatzen saiatu naiz"

JULEN NAFARRATE AURREKOETXEA

Futbola eta migrazioak. Migrazioak eta futbola. Berez lotura berezirik ez duten bi kontzeptu, bi errealitate arrotz, film berean gurutzatu ditu David de la Fuente zuzendariak *Los Williams* lanean. Zinemira ireki-ko duen pelikula honek Iñaki eta Nico Williams Athleticen jokalariek eza-gunen istorioa eta jatorria kontatzen du: beren familiak Ghana utzi, Afrika zeharkatu eta eurak nazioarteko izar bihurtu diren arte.

De la Fuente aitortu duenez, futbola eta kirola "aitzakia" moduan erabili ditu, bestelako edukiei ikusgarritasuna eman ahal izateko: "Futbola bozgorailu moduan erabili dut, beneran inporta zaizkidan istorioak kontatu ahal izateko, nire ibilbide profesionalean landu izan ditudan orain arte: arrazakeria, umeen esplotazioa, migrazioak...". *Un día más con vida* filmean, esate baterako, zinegile iruindarrak Angolako deskolonizazio-prozesuaren ondorioak aztertu

zituena. Goya sariaz gain, animaziozko lan honek Publikoaren Saria lortu zuen Zinemaldian, 2018. urtean.

Williams anaiek duten erreferentzialtasuna baliatu nahi izan du, beraz, gai hauetan sakontzen jarraitzeko: "Txinparta nire semearekin etorri zitzaidan, futbolzalea baita. Gai hauek modu ezberdin batean lantzeko aukera izan nezakeela iruditu zitzaidan, ikuspegi ezberdin batetik. Azken batean, Williams anaiek erreferenteak dira, eta beren familiak oso istorio potentea du atzean".

Izan ere, filmeko protagonistak ez dira bakarrik Iñaki eta Nico anaiek. Beren ama Mariak eta familia osoak parte hartu du: "Williams sendiak proiektuan parte hartu du buru-belarri. Belaunaldi baten, familia oso baten istorioa da, Maria beren amarena eta Felix beren aitona -errodajeak irau bitartean hil zena- barne. Bidaia oso arriskutsua egin zuten Ghanatik irten, Afrika osoa zeharkatu eta Europara heldu ziren arte. Migratzaile askok eta askok egiten duten erre-

litate berbera da. Eta zenbat gertzen diren bidean, zenbat hiltzen diren Mediterraneoan, Saharako hobi-komunean...".

Williams anaiek nazioarteko izarrrak eta erreferenteak diren arren, arrazakeria pairatu behar izan dute futbol zelaietan, eta baita futbol zelaietatik kanpo ere: "Irainak jaso dituzte, gorrotoa, iseka egitea... Baina badakite zein posizio duten, bada-kite ez daudela kolokan, eta aukera badutela beldur barik aurrera egiteko eta eraso hauei aurre egiteko. Niri gustatzen zait halako istorio ausartak kontatzea, eta Williams familia iruditu zitzaidan oso egokia horretarako, euskal erreferente afrikarrak islatzeko. Black basque power hori islatzen saiatu naiz".

Musikak ere presentzia eta protagonismo handia du filmean, Mikel Salasek egindako nahasketa ausarta eta indartsuari esker: "Oso apustu erradikala da, Mikel Salasekin lan egin dut hainbat aldiz, baina oraingoa zerbait ezberdina izan den arren,



Raúl de la Fuente zuzendariarekin, Williams anaiekin.

bete-betean asmatu du beste behin ere". Txalaparta eta irrintziekin batera, Sierra Leonako Chennor Bah musikariaren rap doinuak ere nahastu dituzte.

De la Fuente hunkituta eta pozik agertu da Zinemaldian bere azken lana aurkeztuko duelako: "Nire ibilbide osoa lotuta dago Zinemaldiarekin, beraz, izugarritzko ohorea da".

